



**Euskalerriko
Lutegestia**

Geografia

LIBURU koskor au, Euskalerriko Lutelesti edo jeografia da.
Oraingoz, multikopian bakarrik argitaratu dut. Onela zergatik?

Gure ikastoletako aurrak, lenbailen, gure erriko jeografia bat euki dezaten.

Ikastoletako andereño eta irakasleek, liburu onen akatsak aztertu,
orraztu, eta geroago baten inprentaz, irudi ederrez apaindurik, argitaratzeko.

Liburu onetako irudi geienak Azkoaga'tar Fidel, Elorrioko gazte jatorrarenak dira.

Mapak ugari ipiñi ditut, irudi asko, eta itz gutxien bidez,
telebistaren antzera, gauzak begietatik sartzeko.

Itz gutxitan, gauza asko esaten alegindu naiz.

Nire ametsa au izan da:

Liburu onen bidez, gure Euskalerrria ezagutu bakarrik ez,
baiña maitatzen ere ikas dezagula.

Liburu au Euskalerriko jeografiaren leenengo zatia bakarrik da.

Beste ainbeste falta da. Asti geiago dudadean osotuko dut.

Azkenez: "Euskera osotuan" egiten alegindu naiz,

Euskaltzaindiko buru izan zan Azkue Andiairen bideari jarraituaz.

Au da, nire uste apalez, euskera "bat" egiteko biderik errezena eta pedagogikoena.

Bide onetatik ez zabiltzanok, barkatuko al didazute saio edo experientzi au egiten?

Leenengo pilloa agortu da, eta bigarren au obeto egiña dago.

Loiola'ko ikastolan. 1.973 urtean.

Goikoetxea'tar Iñaki S.J.

LIBURU koskor au, Euskalerriko Lutelesti edo jeografia da.
Oraingoz, multikopian bakarrik argitaratu dut. Onela zergatik?

Gure ikastoletako aurrak, lenbailen, gure erriko jeografia bat euki dezaten.

Ikastoletako andereño eta irakasleek, liburu onen akatsak aztertu,
orraztu, eta geroago baten inprentaz, irudi ederrez apaindurik, argitaratzeko.

Liburu onetako irudi geienak Azkoaga'tar Fidel, Elorrioko gazte jatorrarenak dira.

Mapak ugari ipiñi ditut, irudi asko, eta itz gutxien bidez,
telebistaren antzera, gauzak begietatik sartzeko.

Itz gutxitan, gauza asko psaten alegindu naiz.

Nire ametsa au izan da:

Liburu onen bidez, gure Euskalerrria ezagutu bakarrik ez,
baiña maitatzen ere ikas dezagula.

Liburu au Euskalerriko jeografiaren leenengo zatia bakarrik da.

Beste ainbeste falta da. Asti geiago dudadean osotuko dut.

Azkenez: "Euskera osotuan" egiten aalegindu naiz,

Euskaltzaindiko buru izan zan Azkue Andiarren bideari jarraituaz.

Au da, nire üste apalez, euskera "bat" egiteko biderik errezena eta pedagogikoena.

Bide onetatik ez zabiltzanok, barkatuko al didazute saio edo experientzi au egiten?

Leenengo pilloa agortu da, eta bigarren au obeto egiña dago.

Loiola'ko ikastolan. 1.973 urtean.

Goikoetxea Tar Iñaki S.J.
Goikoetxea'tar Iñaki. S.J.

Euskaldunak, Kro-Magnon izeneko gizakiaren odolekoak garela, uste dute, gaurko antropologo jakintsuek.

Kro-Magnon endako gizona, orain 30.000 urte gutxi gora beera, eguzki aldetik etorri, eta Europan bizitzen jarri zan.

Geroago baten -20.000 urte- Europako sartaldera, Atalantiko Itsaso aldera baztertu zan.

14.000 urte alderuntz, Kantauri Itsas bazterreraiño etorri, eta bertan betiko bizitzen gelditu zan.

Kro-Magnon gizakia, gure lurraldean, egonaren egonez, aldatuaz joan zan, eta gaurko euskaldunak, aldakuntza onetako ondorenak garela, uste dugu.

Au onela bada, Euskal-gizakia Kro-Magnon azitik sortutako landarea dala, esan diteke.


Kro-Magnon gizakiaren aztarrenak, eta berak egindako irudiak: bisonteak, zaldiak, artzak, oreiñak Euskalerriko arpe edo aitz-zulo askotan aurkitu dira: Santimamiñe (Bizkaia), Ekain (Gipuzkoa), Isturitz (Benafarroa).....

Euskaldunak, beraz, nondik etorri dira?.

Euskaldunak ez gara iñondik etorri. Euskal-gizakia Euskalerriko baratze ederrean azi, eta andi-egin dan landarea da.



Baiña, landare onen azia, Kro-Magnon gizona, alegia, nondik etorri zan?.

Gaurkoz erantzun garbirik ezin eman Eguzki aldetik edo etorriko zala, uste dugu. An, urrutian, nonbaiten eta noizbaiten, orain millaka asko urte, gizona agertu zan.



SANTIMAMIÑEKO
BISONTEA

6



A N T Z I Ñ A K O E U S K A L D U N A K

Leenengo euskaldunak eiztariak ziran,
eta aitzeko zuloetan bizi ziran.

Aberen larruekin soifñekoak egiten zituzten.

Euskalerrri osoa, orduan, pagoz, aritzez eta beste zugaitzez
bete-beterik zegoen.

Gure mendietan, mamutak edo elefante illetsuak,
bisonteak, adarbakarrak, leoiak, artzak. basauntzak,
eta beste pizti asko bizi zan.


Euskaldunak arrika, edo lurrean zuloak egin, eta abarrekin
estalita, alako abere andiak arrapatu, il eta jaten zituzten.

Lanerako eta eizarako erabilten zituzten tresna guztiak arrizkoak ziran:

aizkorak, aiztoak, atxurrak, azkonak, aizturak danak su-arriaz egiten zituzten.

Arpe edo koba barruetan antziñako euskaldunak egindako marrazkiak gaur ere ikusi ditezke:

Santimamiñe, Ekain, Altzerri, Isturitz eta abar.





Jesus jaio baiño leen, 300 urte, gutxi-bera,
gure mendietako mea suaz urtu, eta burnia ateraten
ikasi zuten.

Asmaketa berri onekin, leengo arrizko tresnak utzi,
eta burni gogorrezko aizkorak eta beste langailluak
egiten zituzten.


Burnia urtu, eta tresnak egiteko etxeari "OLA"
izena jarri zioten(Eutsoen). Eta burnia lantzen
zuten langilleak "OLA-GIZONAK" ziran.

Geroago, ardiak ezitzen ere ikasi zuten..
Mendietan txabolak egin, eta artzain biurtu ziran


Geroago baten, lura lantzen ikasi zuten.
Soroetan azi erein, eta etxerako janariak
biltzen zituzten.

Itsas-ondoko euskaldunak, berriz,
zugaitz-enborren barruak ustur, eta ur gainean
ibiltzen asi ziran.

Onela arraiñak arrapatzen ikasi zuten,
eta arrantzale trebeak egin ziran.



EUSKALERRIA
orain
2.000 URTE



A N T Z I Ñ A T E K O E U S K A L E R R I A

Antziña artako Euskalerrria, gaurkoa baiño askoz zabalagoa zan.

Orain 2.000 urte Euskalerrriko mugak auek ziran:

Bordeaux(Bordele euskeraz), Agen eta Toulouse gaurko Frantzian.

Huesca, Zaragoza, Soria, Burgos, eta Santander España aldean. (Mapan Begiratu)

Aspaldiko euskaldun aiek, izkuntzaz, oituraz eta odolez bat izan arren, sei leinu edo tribuetan banaturik bizi ziran; baiña beren artean alkartuta edo federauta.

Euskal leifñuen izenak auek dira:

AKITANIA, BASKONIA, BARDULIA, KARISTIA, AUTRIGONIA eta BERONIA.

Leifñurik zabalena Akitania zan, mapan argi ikusten dan bezela.

baiña Baskonia zan seiretatik indartsuena.

Baskoniak gaurko Nafarroa osoa, eta Hueska aldeko lurralde menditsuak ere betetzen zituan.

Bidasoa aldetik, berriz, Kantauri Itsasora irteera estu bat zeukan.

Barduliak, gaurko Gipuzkoako zati andi bat, eta Araban ere beste zati andi bat artzen zuan.


Karistia, Bizkaian Bilbotik Debaraiño zabaltzen zan, baita Arabako zati batean ere.

Autrigonia, Kantauri Itsas-basterrean Bilbotik Leredoraiño, eta lur-barruan ia Burgosko uriraiño luzatzen zan, Bribieska bere barruan artuaz.

Errioxa aldeko Beronia leifñua, erdi-euskaldun, eta erdi-zelta zan.

Gaurko euskeraren izkelgiak leifñu auen mugak zaintzen dituzte, eta noraiño zabaltzen ziran garbi erakusten digute.

KANTAUKI - ITXASOA



JAKA

OSKA

lu.

Euskalerria onela zazpi leiñuetan
banatuta aurkitzen zala,
Erroma-ko gudariak gure mugetan
agerta ziran, Ebro aldetik 194 urte
Jesus jaio aurretik.

Leenegotan, euskaldunen eta
erromatarren artean burruka, eta
eztabaida gorrak izan baziran ere,
geroagoan biak alkar-artu, eta
betiko bakeak egin zituzten.

Erromatarrek Euskalerriko mendi-bide
estuak zabaldu, eta arrizko galtzara
eta zubiak nonnai egin zituzten.

Alako bide zabal, eder bat,
Bordeletik, Dax Orreagako lepoa,
Iruñe, Alba, eta Bribieska zear,
Astorga-raiño luzatzen zan.

Baiña beste bide asko ere egin zituzten,
mapak erakusten duan bezela.

500 urte luzean, ipar-aldeko basati edo barbaroak etorri arte, gu euskaldunok,
oso ondo konpondu giñan erromatarrekin.



Euskalerriak, aldi luze artan, bere mugak zabaldu egin zituan, Errioxa aldean batez.
Baiña Akitania aldean euskera galdu egin zan, latin izkuntza eta erromatarren
oiturak artuaz.

Aia-ko aitzetan, gaurko Oiartzun aldean,
"Arditurri" izeneko mea-tokian,
erromatarrek burnia ugari
ateratzen zuten, gudarako izkilloak
edo armak egiteko.

Bizkaian ere, Somorrostroko burni-meatzak
ezagutzen zituzten.

Erromatarrek, Akitania, Nafarroa eta
Arabako lur zelai emankorretan bakarrik
jarri ziran bizitzen.
Gipuzkoa eta Bizkaiko mendi eta basoetan
ez zan erromatarrik sartu.

Erromatarrek, euskaldunen antzifiako
errria zan Iruñe, artu zuten uriburutzat
eta Ponpilona izen berria jarri zioten



Euskaldunak erromatarrakin oso ondo konpondu gifela ba dakigu.

Baiña gero godo eta frankoekin beti burrukan jardun genduan.

778 urtean euskaldunak Orreagako lepoan Karlomanoren gudarostea guztiz apurtu zuten.

824 urtean berriz ere Orreagan bertan frankoak guztiz ondatuan izan ziran.

Euskaldunak, orduan, Eneko Aritza aukeratu zuten beren buruzagi edo erregetzat.

1.000garren urtean, euskal lurrande guztiak, Nafarroaren babespean, alkarturik bizi ziran.

Nafarroa zan, izan ere, danetatik zaarrena eta indartsuena,

eta beste euskal errialdeak, anai zaarrenaren itzalpean,

batera jokatzen zuten.

Antso Andia izan zan, 1.000 urtetik 1.035 arte, euskaldun guztien buruzagi.

Orduan Aragoako Hueska aldea ere euskalduna zan.

Gaskuñako Kondea ere Nafarroako Erregearen babespean jarri zan.

Euskal errialde guztiak anaiak eta berdiñak ziran.

Ez zan iñor beste iñoren nagusi, ez morroi.

Baiña, alkartasun eder onek ez zuan geiegi iraun.

1.200 urtean, Kastillako Errege Alfontso X, Araba indarrez arrapatu zuan.

Eta urte berean baita Gipuzkoa ere.

1.379 urtean Bizkaia, Nafarroagandik aldendu, eta Kastillara begira jarri zan.

Azkanez Nafarroa bakarrik aurkitu, eta 1.512 urtean galdu zan.

Ego-aldeko euskal lurraldeak, Kastillarekin alkartuaz, ez zuten askatasunik galdu.


Lurralde bakoitza, bere Lege-zarrak edo Foruak zainduaz, bizi zan.

Berdin gertatu zan Lapurdi, Benafarroa eta Zuberookin ere, Frantziarekin alkartu zirenean.

Baiña, lurralde aueri Frantziko Mañxinadak kendu zien askatasuna, 1.789 urtean.

Bizkaiak, Gipuzkoak. Arabak eta Nafarroak 1.839 urtean galdu zuten beren buruen jabetasuna,

leenengo karlista-guda galdu zanean.



EUSKALERRIA

EUSKALERRIA

euskaldunak bizi diran Erria da.

Euskalerria Europaren sartaldean aurkitzen da,
eta Kantauri itsasora begira dago.

Biotz zabal baten antzeko da,
eta zazpi errialdetan banaturik aurkitzen da.

Euskalerriko Errialdeen izenak auexek dira:

1. NAFARROA	10.421 kilometro lauki
2. ARABA	3.047 " "
3. BIZKAIA	2.210 " "
4. GIPUZKOA	1.997 " "
5. BENAFARROA	1.336 " "
6. LAPURDI	857 " "
7. ZUBEROA	789 " "
<hr/>	
Euskalerrri osoak	20.657 kilometro lauki

Nafarroa eta Benafarroa 1.512 urterarte bat izan ziran.
Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdi, Kantauri itsasora begira dagoz.
Araba, Nafarroa eta Zuberoa, lur barruko errialdeak dira.

Euskaldunen jatorrizko Mintzaera Euskera da.



B. Bizkaia

G. Gipuzkoa

N. Nafarroa

A. Araba

L. Lapurdi


BN. Benafarroa

Z. Zuberoa

EUSKAL-ERRIKO

BIZILAGUNAK

A = 1.960 urtean
B = 1.970 urtean



Euskalerrria, zabala ez izan arren, bizilagunez oso betea da.

Kantauri Itsasora begira dagozan lurraldeak dira jendez beteenak. 1.960 eta 1.970-ko bizilagunen zenbakiak alkarren ondoan jarrita, azken amar urte auetako gora-beerak argi ikusten dira:

	1.960 Urtean		1.970 Urtean
Bizkaia	754.383 biztanle		1.043.310 biztanle
Gipuzkoa	478.317 "		631.003 "
Nafarroa	402.042 "		464.867 "
Araba	138.934 "		204.323 "
Lapurdi	150.000 "		151.659 "
Benafarroa	35.000 "		33.000 "
Zuberoa	20.000 "		20.000 "
<hr/>			
Euskalerrria	1.978.676 biztanle		2.543.162 biztanle

Azken amar urte auetan, beraz, Euskalerrria milloi erdian geitu da.

Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa asko azi dira, baiña Bizkaia geien.


Lapurdi ere zerbait aurreratudu, turismoari esker.

Benafarroa eta Zuberoa, ostera, lantegien faltaz, gutxiagora joan dira.

Euskalerrria, inguruko legerriekin berdinkatu ezkerro, maila onean geratzen da.

Kilometro lauki bakoitzeko:

Euskalerrriak ...	127 biztanle ditu		
Frantziak	87	"	"
Españak	62	"	"



EUSKAL-ERRIA

A = 100
B = 100

OF
ALF
12
13
14
15
16
17
18
19
20
21
22
23
24
25
26
27
28
29
30
31
32
33
34
35
36
37
38
39
40
41
42
43
44
45
46
47
48
49
50

URIBURUAK

19

1.970 urtean

BIZKAIA	URIBURUA	BILBO	410.000	bizilagun
GIPUZKOA	"	DONOSTIA	165.000	"
NAFARROA	"	IRUÑE	147.000	"
ARABA	"	GASTEIZ	136.000	"
LAPURDI	"	BAIONA	45.000	"
ZUBEROA	"	MAULE	5.000	"
BENAFARROA	"	DONIBANE GARAZI ...	2.000	"

1.960 urtean

BILBO	298.000	bizilagun
DONOSTIA	135.000	"
IRUÑE	98.000	"
Gasteiz	74.000	"
BAIONA	37.000	"
MAULE	4.700	"
DONIBANE GARAZI ...	1.600	"

1.970 eta 1.960 urteetako zenbakiak ondoan jarri ezkerre, au garbi ikusten da, azken hamar urte auetan geien azi diran uriburuak, Bilbao, Gasteiz eta Iruñe izan dirala. Donostia eta Baiona ere andiagoto dira, baiña ez ainbeste. Maule eta Donibane Garazi, ostera, oso gutxi azi dira.

Euskalerriko uriburuak, gizaldiak zear, ez dira beti berdiñak izan.

Bizkaiko Batzar Nagusia, Bizkaitarrerri legeak emateko,
Gernikako arizpean batzen zan.

Batzar Nagusira deia egiteko, adarra jo, eta suak biztuten ziran bost
mendi-tontorretan: Gorbeia, Oitz, Sollube, Ganekogorta eta Kolitsan.

Nafarroa "bat" zanean, Batzar Nagusiak Iruñen egiten ziran geienetan.
Baíña gero indarrez "bi" egin ziranean, 1.512 urtean,
Donibane Garazi aukeratu zuten Benafarroako buru.

Arabako Batzar Nagusiak "Kofradia" izena artu zuan,
eta urtero Arriaga-n biltzen ziran. Arriaga, Gasteiz ondoan dago.

Gipuzkoak, ordea, demokratzi utsean jokatu nairik, ez zuan nai aukeratu
betiko uri-bururik, erri guztiak berdiñak izan zitezen.
Onela batzar nagusiak, txandaka, erri batetik bestera aldatzen ziran:
Segura, Azpeitia, Zarautz, Ordizia, Azkoitia, Zumaia, Ondarrabi, Bergara,
Mutriku, Tolosa, Arrasate(Mondragoi), Donostia, Ernani, Elgoibar, Deba,
Errenderi, Getaria eta Zestua.

Lapurdiko uri-burua, urte luzeetan, Ustaritze izan zan. Bizkaian bezela
emen ere Biltzar Nagusiak, Ustaritzeko arizpean egiten ziran.

Zuberoako Biltzarrar, Maulen alkartzen ziran.

Euskalerrria ez dago guztia
berdin bizilagunez beteta.

Aldameneko mapan ikusten denez,
itsaso-aldea beteago dago,
lur-barrua baiño.

1.970 urteko bizilagunen
zenbakiak artu ezkerro,
au esan bear da:

Bizkaia da zazpi euskal larraldeetan
bizilagunez beteena;
Kilometro lauki bakoitzean 470 lagun bizi dira.

Bizkaiaren ondotik Gipuzkoa dator.

Benafarroa eta Zuberoa dira bizilagunez ustuenak.


Zergatik?

Alde batetik menditsuak diralako, eta bestetik
industriarik an ez dagolako.

Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako lantegietara erbestetik
gazte asko etorten da lan-billa.

Benafarroako eta Zuberoako gazteak, ordea, Paris aldera
joan bear, bizi-modua aurkitzera.

Europa "bat" egiñik balego, ez litzake onelakorik gertatuko.



ZAZPIAK BAT



Zazpi aizparen gai (an oiala,
 ebakirikan erditik,
 alde batera iru soñeko,
 ezirikin lau bestetik.
 Guraiziakin bereizi arren
 bakoitza bere aldetik,
 ezagutzen da jantzi dirala
 zazpiak oial batekin.

Oialtzat aru zagun Euskera,
 guraizitzat Bidasoa,
 -ibai koxkor bat bestetik ez da,
 utsa balitz itsasoa-
 Elkarren urbil daude zazpiak,
 muga deitzen da Pausoa
 Zergaitik izan ez bear dugu
 famili bakar osoa?.

Arbola baten zaiñetatikan
 sortzen diran landareak
 bezela gera, Bidasoaren
 bi aldeko jendeak.
 Berdiñak dira gure jatorri,
 oitura eta legeak.
 Ama Euskerak magal berean
 azitako senideak.

Bertso eder auek Pello Mari Otaño-renak dira.

Gipuzkoako Zizurkil erri koxkorrean jaio zan.

Erri-olerkari gozoa da Pello Mari. Biotz samur-ertzia.

Euskera eta Euskalerrria, antziñako oitura eta lege zaarrak, maitasun berroz abesten zituan.

Gazte zala Arjentinara joan bearrean aurkitu zan, lan-billa, orduko beste euskaldun gazte asko bezela.

Bere azken urteak Euskalerrrian eman nai izan zituan, baiña tamalez, Rosario de Santa Fe il zan, 1.909 urtean.

Pello Marinak ditugu ain ezagunak diran beste bertso auek:


Mutil koxkor bat itsu-aurreko
 zuela aldemenean,
 gizon buru-soil, bizar zuri bat
 bi makuluren gaiñean,
 kale ertzean ikusi nuen
 iñora ezin joanean,
 ta bera nor zan jakin naienan
 inguratu nintzanean,
 limosnatxo bat askatu zidan
 Jainkoaren izenean.

Zerbait emanaz galdetu nion
 al zan modu onenean,
 jaoitzatikan al zeukan ala
 gaitzak artua mendian.
 Erantzun zidan: "Ez, semea, ez,
 nik sasoi nuenean
 ez nuen uste iritxitzerik
 onetara azkanean
 Gaur limosna bat eskatutzen det
 Jainkoaren izenean.

Pello Mari Otaño.



EUSKALERIKO
MENDIAK



GORBEIAKO
GURUTZEA

MENDIAK

Auñamendi mendi-kateak,
sortaldetik sartaldera,
Euskalerrri osoa zear igaroaz,
Euskal-lurrak bi zatitan banatzen ditu.

Kate onen ipar-aldean: Zuberua, Benafarroa, Laburdi, Gipuzkoa eta Bizkaia aurkitzen dira.
Ego-aldean; Nafarroa-ren zatirik andiena, eta Araba osoa.
Auñamendi, beraz, Euskalerrriaren bizkar-ezurra dala esan ditekete.

Mendirin andienak kate onetan aurkitzen dira:	1. Iru-Errege-Maia	2.438 metro
	2. Ezkaurre	2.047 "
	3. Arlas	2.043 "
	4. Ori	2.017 "
	5. Ortzanzurieta	1.570 "
	6. Aizkorri	1.544 "
	7. Gorbeia	1.475 "
	8. Aralar	1.427 "

Ba dira Euskalerrrian 1.000 metrotik gorako beste mendi asko ere
Andi-andika, Euskalerrrian azala agertzeko, au esan bear da:

Ipar-aldea menditsua dala, eta erri ta baserriak mendi artetan gordeta
bezela aurkitzen dirala.

Ego-aldea, ostera, zelaia, zabala eta nasaia da.

Giroa edo klima ere ez da berdiña:

Ipar-aldea, itsasora begira dagolako, epela eta euritsu da. Ez otzik, ez bero andirik, ez du egiten
Ego-aldea, ordea, legorra da, udan beroa, eta neguan otza.



F. J. Askegaard


Ikusi mendizaleak
 baso eta zelaiak,
 mendi tontor gaiñera
 igo bear dugu.
 Ez nekeak, ezta bide txarrak,
 gora, gora, neska-mutillak.
 a, a, a,
 Gu euskaldunak gara,
 Euskalerrikoak.

Emen mendi tontorrean,
 euskal lurre artean,
 begiak zabaldurik,
 biotza arretan.
 Ain ederr, ain polita da-ta,
 gora, gora, Euskalerria.
 a, a, a,
 Gu euskaldunak gara
 Euskalerrikoak.

Mendizaleak, aurrera,
 goazen mendi gaillurrera,
 euskaldunak esnatzera.
 la ra la

Aupa , goazen bide txigorrez,
 beti gora maldetatik.
 Ederra da gure erria,
 maite dugu biotzetik, ez da ludian oberik
 La ra la

Ez da ludian oberik
 Goazen mendirik mendi,
 baserritik baserrira,
 esanaz alaitasunaz,
 laister nator bai,
 anaia agurrekin.
 Laisterka bide txingorretatik,
 erromerira etorri gara.
 Alai, alaia abes dezagun, mutillak
 Zure ibilera maitia,
 gure alaitasuna.
 Erromerira etorri gara.
 Tra la la



Евскале Рико
iBAIAK

Euskalerriko ibaiak eta errekek asko dira, baita iturriak ere. Ura ugari daukagu Auñamendiko kateak, teillatu andi-zabal baten antzera, Euskalerriko urak bi aldetara bialtzen ditu:

Ipar-aldekoak Kantauri Itsasora.

Ego-aldekoak, Ebro ibaiaren bitartez, Mediterraneoan itsasora.

Kantauri Itsasora doazen ibaiak:

Mediterranean Itsasora, Ebroren bidez, doazenak:

1. Nerbion	72	Kilometro		
2. Ibaizabal	72	"		
3. Deba	58	"	12. Ebro, guztiz	928 Kilometro luze
4. Urola	55	"	" , Euskalerrian ...	130 " "
5. Oria	80	"	13. Aragoa, guztiz	192 " "
6. Urumea	53	"	" , Euskalerrian .	100 " "
7. Bidasoa	60	"	14. Irati	90 " "
8. Aturri, guztiz	335	"	15. Arga	161 " "
" , Euskalerrian ...	30	"	16. Ega	80 " "
9. Errobia(Nive)	74	"	17. Zadorra	60 " "
10. Biduze	80	"	18. Baias	55 " "
11. Uhaitzandi(Saison)	74	"		

(A. Oloron-go gabe)

(B. Pabe-ko gabe)

Bizkaia eta Gipuzkoako ibaiak Kantauri Itsasora zuzen doaz.


Aturri ibaia Frantziako Pirineo mendietan sortzen da, eta 300 kilometro bira andi bat egin ondoren, Euskalerrian sartzen da, Baionan itsasoratzeko.

Errobia, Biduze eta Uhaitzandi, Aturriren adarrak dira.

Ebro Ibaia Santander-eko mendietan sortzen da eta Tortosan amaitu. 100 kilometro zear

Euskalerrri eta Kastillaren muga da. Araba eta Nafarroako ibaiak Ebroren adarrak dira.

Mauleko ibaia Uhaitzandi da. Donibane Garazikoa, Errobi. Baionakoak Aturri eta Errobi(Nive) Iruñekoa, Arga. Donostiakoa, Urumea. Bilbokoak, Ibaizabal eta Nerbion. Zadorra Ibaia Gasteizen Albotik iragoten da.



EUSKALERRIKO

MENDIAK

ETA

IBAI AK

0. Anie	2.507	6-B		31. Larrogain	1.279	4-D		a. Nerbion	72
1. Iru Errege Maia .	2.438	6-B		32. Lauriña	1.277	5-B		b. Ibaizabal	72
2. Ezkaurre	2.047	5-D		33. Toloño	1.271	2-D		d. Deba	58
3. Arlas	2.043	6-B		34. Arbailles	1.268	5-B		e. Urola	55
4. Ori	2.017	5-B		35. Urbasa	1.239	3-B		f. Oria	80
5. Lakartxala	1.982	5-B		36. Ireber	1.202	4-B		g. Urumea	53
6. Otsogorrigane ...	1.916	5-B		37. Enzia	1.193	3-D		h. Bidasoa	60
7. Lakora	1.906	5-B		38. Elgea	1.187	2-B		i. Aturri	335
8. Arrigorrieta	1.712	5-D		39. Arkamo	1.184	1-D		(Euskalerrian) ..	30
9. Biskarte	1.652	5-B		40. Gasteiz-mendi ...	1.180	2-D		j. Errobia edo Nive.	74
10. Santa Barbara ...	1.578	5-B		41. Iturrieta	1.163	3-D		k. Biduze	80
11. Ortzanzurieta ...	1.570	5-B		42. Udalaitz	1.092	2-B		l. Uhaitzandi edo	
12. Aizkorri	1.544	3-B		43. Gorramendi	1.081	2-B		Saison	74
13. Abodi	1.520	5-B		44. Ernio	1.072	3-B		m. Ebro	928
14. Andia	1.494	3-d		45. Tologorri	1.064	1-B		(Euskalerrian).100	
15. Eskaleak	1.478	5-B		46. Jurramendi edo				n. Aragoa	192
16. Areta	1.477	5-D		Montejurra	1.045	3-D		(Euskalerrian).100	
17. Gorbeia	1.475	2-B		47. Badaia	1.042	2-D		ñ. Irati	90
18. Okabe	1.463	5-B		48. Erreniaga(Perdon).	1.037	4-D		o. Arga	161
19. Adi	1.459	4-B		49. Oitz	1.026	2-B		p. Ega	80
20. Kantauri	1.436	2-D		50. Izarraitz	1.026	3-B		r. Zadorra	60
21. Aralar	1.427	3-B		51. Ganekogorta	998	1-B		s. Baias	55
22. Saioa	1.418	4-B		52. Altzania	982	3-B			
23. Kodez	1.414	3-D		53. Saibigain	932	2-B			
24. Leire	1.355	5-D		54. Arlaban	915	2-B			
25. Izaga	1.352	4-D		55. Larruna	874	4-A			
26. Errokate	1.341	5-B		56. Kolitsa	874	1-B			
27. Txindoki edo				57. Aiako Arria	832	4-A			
Larrunarri	1.341	3-B		58. Sollube	663	2-A			
28. Auza	1.306	4-B		59. Pagasarri	648	1-B			
29. Anboto	1.296	2-B		60. Jaizkibel	549	4-A			
30. Elomendi(Higa) ..	1.289	4-D							



LAMIAK

Antziña, uste zuten
Euskalerriko
Ibai eta iturrietan
lamiak bizi zirala.

Lamiak, neska gazte, lirain
eta maitagarriak ziran.
Oso politak gainera.

Ibaia ondoetan eserita,
uretako izpillu garbian
begira,
urrezko orraziaz,
buruko ille-gorri,
luze, ederra,
orraztu ta orraztu
egoten ziran.

Lamien gorputza gerritik gora
emakumearena zan, baiña
gerritik beera arrainaren antzeko.

Bein baten, artzain gazte bat, ikusmiran,
lamin errekara joan zan,
eta ur ondoan, neska eder bat,
illea orrazten ikusi zuan.

Artzain gaztea, bete-betean, maitemifnez, txoratorik geldiru zan.
Etxera joan zanean, amari esan zion(etsan):

-Ama, gaur bertan ezkondu egin bear dut.

-Zer, seme?. Geiago gabe ezkondu?. Norekin?.

-Lamin errekan ikusi dudan neska eder batekin.

-Begira gero ondo, seme. neska orrek zelako oinak dituan

Joan zan, ongi begiratu, eta oinen orde, arrain buztanaren antzeko
zuala ikusi zuan.



Artzain gaixoa, ainbeste maite zuanarekin, ezin ezkondu zala jakinik, negar
ta negar, tamalez, antxe bertan il zan.

Lamiak, artzainaren gorpu illotza, berinezko edo kristalezko kutxa eder
baten sartu, eta erreka sakonean obiratu zuten.

Geroago baten, artzain gaixoa negarrez il zan tokian bertan, bi landare
lõretsu sortu ziran.

Landareak, bi izan arren, elkar besarkatuta, zugatz bat bakarra dala
esango zenuke.

Lamia eta artzain gaztea dira.



ETXE BARRIKO
GARATEA

Euskalerriko lurrak eta giroak ez dira danean berdiñak:

Kantauri Itsasora begira dagozan lurraldeak menditsu eta bustiak dira.

Ebro aldekoak, ostera, zelaiak eta legorrak.

Itsaso aldean sortzen diran odei euritsuak, Añamendi katea nekez urratzen dute.

Onegatik Ebro aldea legorrago eta eguzkitsuago da.

IPAR--ALDEA: Menditsu eta euritsu da. Ez du emen, ez otz, ez bero geierik egiten.

Mendi goitan neguan elur zuria ikusten da eta belar biguna udan.

Zugatzak ugari, alde guztietan; pagoak, aritzak eta piñuak batez ere.

Nekazariak baserri edo bordaetan bizi dira.

ERDI--ALDEA: Alde onetan zalaidi zabalak aurkitzen dira, mendi txikiz inguraturik.

Alde au Ipar eta Egoaldearen tartekoa da, eta Euskalerraren berria da.

Ez du emen euri geiegirik egiten, baiña soroak bustitzeko bai naikoa.

Nakazariak, zalaidian sakabanatuta dagozan erri koskorretan bizi dira.

Erritxo auek oso politak dira, eleiza erdian dutela.

EGO--ALDEA: Zelaia eta legorra da. Mendi andirik ez da emen ageri.

Udan bero andiak egiten ditu eta neguan izozteak. Aize otzak gogor jotzen du.

Alde onetako lurrak oso emankorrak dira eta ibaiak urez aberatzsak.

Goiko eguzkiak eta ibaietako eguzkiak lagundurik, lurralde zabal au,

nekazaritzan Euskalerriko aberatsena da.



Ipar-aldea, itsasoak ezitzen dualako, bustia eta epela da.

Emengo lur-azala beti orlegiz jantzita agertzen da, bai udan ta bai neguan.
Ipar-aldeko nekazarien bizi-lekua baserria edo borda da.

BASERRIA: Mendi magaletan, an eta emen, zugaizpetan ezkutaturik, soro eta belar landak inguruan dituala, etxe zuri, zabalak ikusten dira; baserriak edo bordak dira. Baserri aldamenean belar-meta eta siloak dagoz, neguan abereeri jatekoa emateko. Ukulluetako beiak esnea ugari, eta txalak saltzeko aragia ematen dute. Artoa da Benafarroan eta Zuberoako soroetan geien ereiten dana. Bi lurralde auetan arto asko eta mamintsua artzen da. Baserri inguruko baratzean; porru, tomate, patata edo lursagar eta beste barazki mota asko biltzen da, bai etxean jateko, bai gero azokan saltzeko.

MENDIAK: Euskalerriko mendi eta muñoetan, Benafarroa eta Zuberoako larre edo pentze belartsuetan batez ere, artalde zuriak ugari ikusten dira, udaberriko belar biguna bazkatzen. Artzaiñak, ardi esneaz, gazta gozoak egin eta saltzen dituzte.

BASOAK eta OIANAK: Añamendiko bizkarrak, pago zabal eta aritz tantalez estalita dagoz. Nafarroa zaarreko eta Zuberoako mugaren bi aldetan dagon Irati-ko pagadia, ikusgarria da. Europako zabalena bera da.


Bizkai eta Gipuzkoako menditxoak, eskuz landatutako lerrondo edo piñuz beterik dagoz. Piñu egurretik papera eta zelulosa ateraten dira.

Bizkai eta Gipuzkoako baserritar geienak bi irabazi dituzte; baserria eta kaleko lantokia. Alde bietan lan eginaz, bi iturri auetik, dirua polito etxeratzen dute. Baserriak izan dira beti, euskera, gure izkuntzaren zaindaririk onenak. Gure abizen geienak baserriaren izenetik artuak dira.

ERDI-ALDEA




F. J. A. K. O. R. G. A.
1910



Nekazaritzako erdo-alde onek, Errioxa kendu ezkerro, Araca guztia artzen du. Nafarroan, berriz, Iruñe inguruko lur zabal eta ederrak bereak ditu. Alde au ipar-aldea baiño legorrago da, baiña negu eta udaberrian neiko euririk egiten du, eskuz urik eman gabe, lurrak bere frutua nekazarieri emateko. Lurralde au zabala da. Mendiak ba dira, baiña txikiak eta zelaiak andiak. Erri koskor politak zalaidian sakabanatuta ikusten dira. Erri bakoitzak bere inguruan ba ditu; gari, garagar, orlo eta beste onelako soro aberatsak.

Uztaroan, eguzkiaren berotan, zelaidi zabalean gari zoro oriak agertzen dira, beren frutu ederrak eskeintzen.

Alde onetan biltzen dan gariaz bakarrik, Euskalerra guztiarentzat ogia egin diteke.



Baiña alde onetan ez da garia bakarrik artzen. Lursagarra edo patatea ere asko eta ona ematen da, Arabako zelaidian batez ere.

Lur bustietan udarbi edo erremolatxa gozoa ere ondo biltzen da. Udarbi onekin gero azukerea egiten da.

Beraz, erdi-aldean; garia, lursagarra edo patatea, eta azukerea egiteko erremolatxa gozoa artzen dira, batez ere. Oraintsurarte alde onetako aberastasuna nekazaritza bakarrik izan da, baiña gaur industri-lantegiz betetzen asi da.




Alde onetako lurrak oso zabalak dira. Ez da emen mendi andirik. Erdi-aldean bezela, emen ere garia eta garagarra asko erieten da, baiña alde onetako gauza berezia MAATSA da. Alde ontan maasti asko dago. Ego-aldean maasti asko dago eta maats ona eta gozoa emen elduten da. Errioxako ardoak, batez ere, edalarien artean, ospe andia dauka. Baiña lu aberats auek mama-gozoa bakarrik ez, olio ere ematen dute.

Ego-aldeko lurrak mamintsuak dira, baiña udan eguzkiak gogor jotzen du. Frutua ugari ekarteko ur asko eta ugari bear dute. Orretarako Ega, Arga eta Aragoako ibaietako urak artzen dira. Nafarroako ego-aldean, ura emandako lurrak 70.000 hektarea baiño geiago dira.



Ebro-aldeko lur gizenak, eguzkiak goitik eta urak azpitik lagunduta; piper, zainori, esparragu, tomate, alkatxofa, aza, uraza edo letxuga eta beste amaika barazki eder, ematen ditu. Igalietan, berriz, madariak, sagarrak, aranak, muxikak edo melokotoiak, meloiak eta abar ... urtsuak eta gozo-gozoak biltzen dira. Nafarroako Erribera osoa, baiña Lamejana deritzan Muskariako lurra, Euskalerriko baratze aberats eta emankorra dala esan diteke.

Igaliak eta barazkiak luzaroan gordetzeko, azken urteetan, Ebro aldean kontserba-ola asko sortu da. Onela nekazaritza eta industria, bear dan bezela, alkarrekin uztartzen dira.



NERRE ETXEA

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean,
etxe ttipitto aintzin zuri bat,
lau ahitz ondoren erdian,
zakur zuri bat atean,
iturriño bat aldean,
Han bizi naiz ni bakean.

Nahiz ez den gaztelua,
maite dut nik sor-lekua,
aiten aitek hautatua.

Etxetik kanpo zait iduritzen
nonbait naizela galdua,
nola han bainaiz sortua,
galtzen ez badut zentzua.

Ez da munduan gizonik,
Erregerik, ez printzerik,
ni bezein urusa denik,
ba dut andrea, ba dut semea,
ba dut alaba ere nik,
Osasun ona batetik,
ontasun aski bestzetik,
zer behar dut gehiagorik?.


Bertso auek Joan Bautista Elizanburu-renak dira
Izen andiko bertsolaria izan zan.
Lapurdikoa, Sara errian jaio zan, 1.828 garren urtean.
21 urte zituela soldadutzara joan zan,
Frantziako, Napoleon III garrenaren serbitzuan,
eta kapitai izateraiño eldu zan.
Euskalerritik kanpo 22 urte bizi arren, ez zuan
bere amaren izkuntza, euskera maitea, aaztu.
Etxera iltzuli eta aldi artako euskal bertsolarien
txapelketa geienetan, txapeldun atera zan.
Gizon zintzoa zan Jatorra..... Apala
Jendeen txaloak ez zuten arrotu.

Elizanburu olerkari sakon, biotz andiko eta sentikorra da.
Bera izan zan, askoren iritziz, XIX garren gizaldiak,
izan duan euskal olerkaririk onena.
Bertso auetan eskatzen duan bezela, Sarako bere borda
edo baserri maitean il zan, 63 urtekin.

Iztegitxoa

Menditto - menditxo	Printze	- Pricipe
Ttipitto - txikitxo	Urusa	- zorioneko
Aitzin - aurre	Aski	- naiko
Ahitz - aritz	Bertzerik	- besterik
Sortua - jaioa	Zakur	- txakur

EUSKALERRIKO INDUSTRIA



Fel. A. Korta

Industriari buruz, Euskalerrria iru zatitan banatu diteke:

LEENEGO ZATIA : Lapurdi, Benafarroa eta Zuberoa.

Alde onetan lantegi oso gutxi dago;

Baiona inguruan zerbait; Donibane Lohitzunen arrain-kotzerbak,
eta Hazparne ta Maule inguruan beste ezer gutxi.

Eskualde onetako industria, turismoa bakarrik dala, esan diteke.

Ipar-Euskalerrriko gazteak, urtero 2.000 mutil eta neska,

Paris aldera joan bearrean aurkitzen dira, lan billa.

BIGARREN ZATIA: Bizkaia eta Gipuzkoa.

Bi errialde auek industritzan oso aberatsak dira ete lantegi aundi
eta txikiz bete-beterik dagoz.

Industria sortzen, Bizkaia izan zan aurrelari, baiña laister, Eibar
zubi zala emengo industria Gipuzkoara igaro zan.


Gaur bi aldeak industritzan leenenak dira.

IRUGARREN ZATIA: Araba eta Nafarroa.

Bizkaia eta Gipuzkoa lantegiz leporaiño bete zirenean, itsaso aldeko
industria, Araba eta Nafarroako lur zelaietara igo zan.

Gaur bi alde auek ere, industrian oso aurrera doaz.

Leenago, euskaldun gazteak, Ameriketara bizitzeko lan-eske joaten ziran
Orain, industriari esker, ba da lana gure errietan, bai gure gazteentzat,
baita kanpotik gurera ogi-billa datozen guztientzat.



F. A. Koega

Orain 2.300 urte gutxienez, euskaldunak, aurrerago esan dugun bezela, burnia egiten ikasi zuten.

Leenago burni-olak mendietan egin zituzten, baiña XIV gizaldian, pizkanaka ibai ondoetara jasten asi ziran, uraren indarraz baliatzeko. Euskalerrian OLA askok burnia egin eta lantzen zuten:

Bizkaiko olak 250, beintzat, ba ziran. Gipuzkoakoak 150 baiño geiago. Araban eta Nafarroan ere burni-ola batzuk lan egiten zuten.

1.764 urtean, Azkoitian (Gipuzkoa), "Irurak bat" izeneko lagunartea sortu zan, Euskalerriko industriari eta Nakazaritzari indar berria emateko.

Lan ederra egiten asi zan, baiña Napoleonen gudan dana ondatu zan.

Dana dala, 1.800 urtean, Gipuzkoa zan. Españaren menpeko probintzi txiroena eta atzeratuena.

Bizkaia ere Gipuzkoaren antzera aurkitzen zan.

Gaur, ordea, industritzan, bi lurralde auek aurrenak dira.

Nondik aldaketa miragarri au?.

1.882 urtean, Bizkaia antzikiako olak baztertu eta Barakaldoko "Labe Andiak" eraiki zituan.

1.900 urtean, Gipuzkoako, Bergaran iru "Labe Andi" lanean asi ziran.

Beste aldetik, industri berri oni laguntzera, diru-etxe indartsuak etorri ziran


Onela, gure industri makal-zaarra, berritu, anditu eta gogortu egin zan.

Ona emen, itz gutxitan. mirari au argituta.

Geroago baten, Araba eta Nafarroa ere pizkortu eta industriatzen asi dira.

Araba 1.950 urtean. Nafarroa, geroxeago, 1.965 garrenean. Gaur lantegi ederren jabe dira.

. Baiña, Lapurdi, Benafarroa eta Zuberoa, gure anaiak, noiz asiko industriatzen?.



BIZKAIKO INDUSTRIA:

Bizkaiko industriaren bul-emaillea Bilbo izan da.

Uri kementsu onek, bere portu zabal eta ibaiaren alboan dituan lantegi andiekin, inguruetako industri guztiari indarra ematen dio(deutso).

Bizkaiko industriadun erriak asko eta andiak dira.

Amar erri industritsuenak bakarrik emen aitatuko ditugu: Barakaldo, Sestao, Basauri, Galdakano, Durango, Elorrio, Mungia, Berriz, Zaldibar, Gernika

GIPUZKOAKO INDUSTRIA:

Ez dago emen Bizkaian lako lantegi andirik, baiña errietan obeto banaturik dago.

Gipuzkoan, esan diteke, ez dagola erri txikirik, lantegien bat ez duanik:

Eibar, Elgoibar, Bergara, Arrasate(Mondragoi), Legazpia, Beasain, Zumarraga, Tolosa, Oñati, Azpeitia erri industritsuak dira.

ARABAKO INDUSTRIA:

ARABako industria bi lekuetan multzokatu da.

Gasteiz inguruan eta Nerbion ibaiaren bi aldamenetan.

Arabako uriburuan lantegi asko kokatu dira, azken ogei urte auetan.



Amurrio eta Laudio, Nerbionen aldamenetan, Bizkaira geiago begira dagoz, Arabara baiño.

NAFARROAKO INDUSTRIA:



Nafarroako industriak, ordea, alegin andiak egin ditu lau aldeetara zabaltzeko.

Ala ere, Iruñe inguruan, lantegi asko pillatu da.


Nafarroako Muskaria(Tudela), Altsasua, Lizarra(Estella), Bidasoako Bera, Leitza, Irurtzun, lantegiz jantzita dagoz.







EUSKALERRIKO



INDUSTRIAREN



EMBITZAK



Baiña, Euskalerriko lantegietan zer egiten da?.

Zer egiten dan baiño, errezago litzake, zer ez dan egiten esatea.

Euskalerriko lantegietan danetatik egiten da:

Burnia eta altzairua, itsasontziak(andiak eta txikiak), berebillak, motoak, eskopetak, josteko makiñaz, tornoak, taladroak, papera, oialak, kautxuzko neumatikoak, plastikoak, kimika-gaiak, pinturak, etxerako elektriko-tresnak, zurezko eta metalezko errezelak edo muebleak, gozokiak

BIZKAIA : Barakaldoko "Labe Andietan" burdiña eta altzairua egiten dira.

Sestaon eta Bilbon itsasontzi andiak, Basaurin "Firestone" neumatikoak.

Somorrostron petrolio errefineria dago.

GIPUZKOA: Eibaren "Alfa" josteko makiñaz, eskopetak, motoak, eta abar.

Elgoibaren "Sigma" josteko makiñaz. Bergaran oialak. Legazpian lan-tresnak.

Oñatin gozokiak. Tolosan papera. Beasainen tren-bagoiak.

Lasarten "Mitxelin" neumatikoak. Azpeitia eta Zarautzen errezelak.

ARABA : Gasteizen, berebillak(furgonetak), "Fournier" inprenta-lanak, errezelak

Laudion, berinak(Bidrierak, elektrodoak. Amurrion edari-biziak.

NAFARROA: Iruñen, berebillak, txerriki-kontserbak, etxelektriko-tresnak

Leitzan eta Sangotzan papera. Irurtzunen altzairua

Muskarian(Tudela) S.K.F. pirrikak(rodamientos) eta igali-kontserbak

Euskaldunak, ikusten danez, ez gara lanerako esku-motzak.



Antziña, gure mendietan aizearen indarraz ibiltzen ziran olak, "Zear-olak" ziran.
 Geroago, ibailetako urakin baliatzen ziranak "Gabi-olak" ziran.
 Goiko marrazkian ikusten duzun maillu andi ori "Gabia" da.
 Olaetako langilleak ola-gizonak edo ola-arotzak ziran eta "Matxin" izena artu zuten.

A Z K E N
O L A-
G I Z O N A

Tiriki-tauki-tauki
mailluaren otsa
Gaur gora nai nukela
nik Gabi-arotza
bai burni-arotza
mailluaren otsa.

Tiriki-tauki-tauki
olaren durunda
gure ibar-zelaietan
noztandik entzun da?
Noiztandik entzun da
Olaren durunda?.

Lenen maillukaria,
omen, Tubalkain,
lenengo ola-gizona,
antziñako Matxin.

Orduan nundikan-nai
mendiak meatza,
mendiak meatza eta
basoak ikatza.

Basoak ikatza ta
beso-zaiñak gatza,
kintaleko maillua
"matxin" batek dantza.

Mendian Zear-ola,
errekan Gabia
Gabi-olaetako
taukaren aundia!

Tiriki daunga-daunga
onen oiartzuna
Euskal-erri guztian
nork ez dun entzuna!


Ni Legazpira nintzan
gazte ta lerdena
-Bengolako Olean
neu nintzan gaztena-

Au ere gelditu zan
an zan gure pena!....
Gipuzkoan Bengola
geldi zan azkena.
An zan gure pena!
Oletan ezkena.

Baiña, mundua mundu,
nik matxin izena
Lenena Matxin bazan,
Matxin baita azkena.

Goiko bertsoak Lekuona'tar Manuelenak dira. Apaiz au Oiartzunen jaio zan 1.894 urtean.
Gasteizen egin zituan bere ikasketak eta erri bertan euskera erakutsi zuan ogei urtean.
Euskaltzandiko buru ere izan zan. Lan asko eta ederra egin du euskal-elertian, On Manuelek.

KANTAURI ITSASOA



EUSKALERRIKO

IISAS-BAZTERRA

I T S A S - B A Z T E R R A

Euskal lurrak Kantauri Itsasoak bustitzen ditu.

Itsaso onek, uztai andi eta zabal baten antzera, Bizkaiko golkoa eratzen du.

Euskal izpazterrak Baionatik Bilboraiño 250 kilometro luze ditu.

Bizkaiko Golko onetan, bi lur-mutur itsasoan sartzen dira: Matxitxako eta Higer.

Matxitxako lur-muturra Bizkaian, Bermeo ondoan dago.

Higer, Gipuzkoa eta Lapurdiren mugan aurkitzen da.

Euskalerriko itsas-aldea, bere arkaitz arro, ondartzak legun eta arrantzaleen erri tukunekin. ikusgarria da. Begien zoragarri.

Gure itsas-basterrean bi gauza eder aurkitzen dira bereziki;

Kaiak edo portuak eta ondartzak edo plaiak

Euskal izpazterrean erri andiak dagoz;

Beste erri asko, tamalez, alde batera utzita, lurralde bakoitzeko iru-lau bakarrik aitatuko ditugu;

Bizkaian : Bilbo, Santurtze, Bermeo, Gernika, Lekeitio, Ondarroa

Gipuzkoan: Zarautz, Donostia, Pasaï

Lapurdin : Donibane Lohitzune, Miarritze, Baiona

Erri bakoitza non dagon aldameneko mapak erakusten du.

Itsasoa laño dago, Baionako barraraiño.

Nik zu zaitut maiteago, arraitxuak ura baiño.

56 BILBO



PASAI



BAIONA



BERMEO



ONDARROA



DONIBAIÑE L.



LEKEITIO



MOTRIKU




GETARIA



ORIO



SANTURZE




KATAK

K A I A K

57

XI garren gizaldian asita, bai beintzat, euskal arrantzaleak, Polo aldeko ur otzetara joaten ziran baleak arrapatzera.

Geroago, baleak andik alde egin zutenean, makaillacoa arrapatzen zuten, Terranovako uretan.




Euskaldunak antziñatik izan dira gizon trebeak, eta ausartak, ur gaiñean ibiltzeko, baita itsasoak bere sabelean gordetzen dituan ondasunak ateratzeko

Euskal izpazterra, itsaso aldetik begira ezkerre, kaiez edo portuz beterik ikusten da. Batzuk saleroste(komertzio) kaiak dira, besteak arrantzurako kaiak.

S A L E R O S T E - K A I A K

Saleroste edo komertzio kaietan Euskalerriko nagusi eta lendakari BILBO da. Kai indartsu eta aberats au, mundu zabaleko portu andiekin salerosketan loturik dago. Bilboko portu berria, Europako sakonena da. Kai onen babesera petrolio-otzi itztrak etortzen dira, kai aldamenean dagon iraztegi edo refinerian petrolio garbitzera. Bilbo ondoren, salerosketan portu indartsuenak, Pasai eta Baiona dira. Baionako portua Aturri ibaiaren bokalean dago. Ederra eta zabala da. Pasaiko portua, Donostiaren ondoan dago eta onen itsasorako irteera dala esan ditekete.



A R R A N T Z U - K A I A K


Lapurdikoko arrantzu-kai aaltsuena Donibane Lohitzune da. Portu ederra eta paketsua da. Atunetan, Frantziako estaduak ez dauka bere menpean kai indartsuagorik. Donibane-ren ondoan Ziburu dago. Biak bat dirala ematen du.

Gipuzkoako arrain-kai ezagunenak dira:
Ondarrabi, Orio, Getaria, Zumaia, eta Mutriku.
Baiña Pasaiko kaia salesketan ez eze,
arrantzuan ere Gipuzkoako txapeldun da

Bizkaian ere ba dira kai ederrak eta bizkorrak:
Lekeitio, Ea Elantxobe, Santurtze
Baiña arrantzuan Bizkaiko txapeldunak Bermeo
eta Ondarroa dira.
Bermeo "bajurako" arrantzuan, eta Ondarroa "alturakoan"

Arrain artu-berria ezin saldu denean,
luzaroan gordetzeko, Euskalerriko izpazterrean
ba dira izoztegiak eta kontserba-olak, ugari.
Donibane Lohitzunen bakarrik,
15 arrain-kontserbategi dagoz,
eta bertan 2.000 lagillek lan egiten dute.





● ONDARTZAK

ONDARTZAK


Miarritzeko eta Donostiako ondartzak Europa guztiak oso ezagunak dira. Leenengoa Baiona ondoan dago, eta bigarrena Gipuzkoako uriburua da. Uda-aroan etxeko eta atzerriko udatiarrekin bete-bete egiten dira. Eta ez da arritzeko. Bi iri auek ain txukun eta politak dira, eta ango ondartzak ain alai eta zoragarriak.

Lekeitio eta Zarautz ere Euskalerriko beste bi ondartza oso ezagunak dira. Leenengoa Bizkaian dago, bestea Gipuzkoan. Auek ere ikusgarri politak dira eta atzerritar turistak asko maite dituzte.

Baiña gure itsas-aldean ba dira beste amaika ondartza polit-ederrak. Guztien izenak emen ezin jarriaz, gutxi batzuk bakarrik aitatuko ditugu, tamalez:

Donibane Lohitzune eta Hendaia, Lapurdin.
Ondarrabi, Zumaia, Deba eta Saturraran(Mutruku), Gipuzkoan.
Laga eta Laida, Bakio, Gaminitz(Plentzia) eta Sopelana, Bizkaian.

Udako opor egunetan, eguzkiak goian laguntzen duanean, ondartza zoragarri guztirauek, baiñu-zale leporaiño betetzen dira. Euskalerriko ondartzak, ain politak dira ikusteko eta ain egokiak neguko lanaren astuna arintzeko, baita gure gorputz eta gogoari bear duten atsedena emateko. Euskalerriko mendiak ain politak izanik, gure itsas-aldea ere ez dabil atzetik.



